

KAZETARIEN BELDURRAK

Deskribapena: Kike Donostian ageri da ondoan “ezinegona” hitza duela.

Kike: “Jendaurrean aritzeak ezinegona sortzen du, baita jendaurrean hitz egiten ohituta gaudenoi ere.”

Deskribapena: Joxe Mari Apaolaza ageri da lehenengo irratiko estudio batean.

Joxe Mari: “Askotan esan izan diot neure buruari, ezta? Baina nola da posible, ba, mikrofono aurreko jardunerako, eguneroko lanean, ez daukazu inolako arazorik eta ikusleak, edo publikoa aurrean baldin bada, edozein mahainguru dela, bestea dela, esango dizut, egitan, e, askotan, baita bihotz taupadak takikardiatik gertu ere bai!”

Deskribapena: Usoa Arbelaitz telebistako kontrol areto batetan ikusten da.

Usoa: “Eztula egiteko gogoia sartzen zaizunean, edo doministikoa, hori ez zait inoiz pasa doministikoarena baina inoiz pentsatu izan dut bua, doministiko egiteko gogoia etortzen baldin bazaizu edota ezin hitz egin izana ba, hori da neretzako beldurrik handiena.”

Deskribapena: Arantxa Iturbe irratiko estudio batean ikusten da.

Arantxa: “Bueno, beldurra singularrean ezingo nizuke erantzun, beldur mordo bat dira, “k” bat jarri beldur horri, paniko deitzen diote, hala diagnostikatua dago, beraz da beldur haundi-haundi-haundia eta potolo-potoloa, seguruenik beldur bakarrean oinarritzen dira eta da ridikulua egiteari beldurra, hanka-sartzei beldurra, esaten duzuna jendeak behar bezala ez ulertzeari beldurra,…”

Deskribapena: Jaime Otamendi eitb-ko pasiloetan ikusten da.

Jaime: “Beti imajinatu behar izaten dut aurrean daukadana, e, nor den, ze pentsatzen duen eta ze entzutea gustatuko litzaiokeen. Irratian, beti egunero-egunero pertsona batekin akordatzen nintzen, pertsona diferentea, baina irudikatu egiten nuen eta telebistan pittin bat konplikatuxeagoa da.”

Deskribapena: Ilaski Serrano kamerinoan agertzen da.

Ilaski: “Ba egixe esan, nik ez dakat beldurrik jendaurrean berba itteri, e, oso eroso sentitzen nai eta iruditu iten naz dakotezen heldulekuk eta euskarririk nahiko indartsuek diela,... Salbuespenen bat euki dot, enei enegon oso eroso eta izan da nire hizkuntzan berbetan enai egon pare bat alditan.”

Deskribapena: Manu Etxezortu irratiko estudio batean agertzen da.

Manu: “Nik esango nuke publiko aurrean hitz egiterakoan komeni dela anekdota bat etxetik pentsatuta eramatea, horrek balio duelako zure burua lasaitzeko eta balio duelako jendea pixkat patrikaratzeko edo jendea zure alde jartzeko.”

Deskribapena: Mikel Pagadizabal aulki batean eserita ageri da.

Mikel: “Ba nei beldur gehiena ematen ditena da jende aurrean hitz egiterakoan ahoa lehor gelditzia, ahoa seko-seko inda ta antzoki batzutan eta plato batzutan kriston hautsa egoten da eta sentitzen dezu nola ahoa sekatzten juten dan, toju, toju eta gero ura edan behar eta kriston beldurra ematen dit horrek.”

Deskribapena: Arritxu Iribar agertzen da.

Arritxu: “Jendaurrean, jendea ikusten duzu, ridikuluaren beldurra daukazu, txuriz gelditzea, bueno, mila gauza. Irratiak beste lasaitasun bat ematen du alde horretatik.”